

TOLOSA / Irakurzaletasuna sustatzeko egitasmoa abiarazi du Galtzaundi Euskara Taldeak

Uztailaren 25era arte liburu bat maileguan hartzen duenak %25eko beherapena izango du Elkar liburudendan.

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak Irakurri, Gozatu eta Oparitu Tolosan! egitasmoa abiarazi du, Liburuaren Egunaren harira. Ekimena ez da berria, Euskal Herriko herri ugaritan jarriko da martxan eta aurten lehen aldiz Tolosara ekarri du Galtzaundi Euskara Taldeak. Helburu nagusia irakurzaletasuna sustatzea dela adierazi dute.

Galtzaundik Tolosako liburutegiekin eta Tolosako Elkar liburudendarekin elkarlanean gauzatu du proiektua. Funtzionamendua gaurtik, Liburuaren Nazioarteko Egunean, uztailaren 25era, Tolosako edozein udal liburutegitan euskarazko edozein liburu maileguan hartu eta irakurri egin behar da.

Galtzaundiko bazkideek ere beherapenak

Liburua itzultzean, liburuzainak emandako fitxa bete behar da, liburuari buruz iritzia emanez. Adin tarte bakoitzeko fitxa bana egongo da, eta txikien kasuan heldu batek beteko dio formularioa. Fitxa betetakoan, liburuzainak opari-txeke bat emango dio irakurleari. Honekin, %25eko beherapena egingo diote Alde Zaharreko Aroztegieta kaleko Elkar liburudendan euskarazko edozein liburu erosterakoan.

Gainera, Galtzaundi Euskara Taldeko bazkideek beste %25eko beherapen gehigarria izango dute, aurrekoarekin metagarria izan- go dena. Beherapenak inoiz ezingo duela 25 euro baino gehiago izan adierazi dute.

Liburu gomendagatuen zerrenda osatu du Galtzaundik

Liburu gomendagarrien zerrenda Topaguneak, euskarazko 100 liburu gomendatzeko eskumena ere hartu du. Uxue Alberdi idazleak osatu du 90 liburu gomendagarrien zerrenda.

Galtzaundi Euskara Taldeak, bere aldetik, beste hamar liburu gomendagarri gehitu dizkio zerrenda horri. Zerrenda honetan, adin tarte guztietarako egokiak diren liburuak sartu ditu. Zerrenda hau, Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoaren webgunean kontsultatu daiteke.

Irakurzaletasuna bultzatzearekin batera, xede gehiago ere ukitzen ditu Irakurri, Gozatu eta Oparitu egitasmoak; batetik, euskararen erabilera gozagarria bultzatu nahi du, eta kulturak eman dezakeen plazera aldarrikatu.

Bestalde, euskaltzaleak liburutegi publikoen erabiltzaile aktibo bihurtu nahi ditu egitasmoak. Halaber, aurrera eramango dutenen elkarlana ere jada baba lortutako helburu bat. Eta azkenik, Irakurri Gozatu eta Oparitu programaren bidez, euskarazko liburuen ekoizpena eta salmenta ere sustatu nahi dituzte.